

## **BERMEOKO PORTUKO ANTOLAMENDU-PLAN BEREZIAREN HIRUGARREN ALDAKETA**

### **E AGIRIA. BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO FINANTZARIOKO AZTERKETA**

#### **E.1. SARRERA**

Plan berezi honen bideragarritasun ekonomiko finantzarioko azterketak, Eusko Jaurlaritzak kudeatutako azpiegitura publikoa dela kontuan hartuta, proposatutako antolamendua osatzen duten obren egikaritze-kostua ezagutzean datza; horrela, zenbatekoaren erreferentzia edukiko du Euskadiko Administrazio Orokorrek hasiera batean Bermeoko portuko plan bereziaren hirugarren aldaketan planteatzen diren konpromiso ekonomikoak ezagutzeko.

Bideragarritasun-azterketa horretan jasotzen diren inbertsioak publikoak dira, portuarekin lotutako jarduerak gauzatzeko ekimen pribatuz egiten diren inbertsioak kontuan hartu gabe.

Ondoren adieraziko diren kostuen datu guztiak Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) sartu gabe dute. Plan berezi hau idazteko unean, adierazitako kostuei %21a aplikatu beharko zaie.

#### **E.2. PROPOSATUTAKO ETAPAK**

Kapitulu honetan, D agirian "Antolamenduaren gidalerroen eta egikaritzaren kudeaketaren azterketa" proposatzen diren hiru etapatan egikaritutako diren inbertsio publikoen obren balorazioa egingo da.

#### **E.3. KOSTUAK EGUNERATZEA**

Portu Zaharreko Kaiaren handitzea egintzat jotzen dela kontuan hartuta, eta Lonjaren zabaltzeko lehenengo fasea kasik amaituta, gaur egun egiteko dauden eraikinen kostuak eguneratuko dira, eta baita Kofradiako zubiaren kostua ere.

Plan berezian proposatutako eraikin desberdinen kostuei eta dagozkien azalerei buruzko ezagutza egokia dago eskura, eta, halaber, portuko ipar-ekialdeko muturrean egiteko betetze lanei buruzkoa.

Beraz, zuzkidura publikotzat hartutako eraikin bakoitzaren lur-arrasetik gora dagoen sabai-azalerako metro karratu bakoitzeko kontrataren egikaritze-kostua hartuko da abiapuntutzat eta zerbitzu-sarien, topografiaren eta geotekniaren kostuak gehituko zaizkio eta, baita, udaleko zergak eta eraikuntzaren aseguruak ere.

Bokaleko zubiaren kostua kalkulatzeko, %62ko eguneratzea aplikatuko zaio 2001etik 2020era bitartean, plan bereziaren lehenengo aldaketaren kostua 1,62 koefizientearekin zabalduz, aipaturiko denbora-tarte horretan obra publikoaren kostuak izandako bilakaera behar bezala irudikatzen duen koefizientea baita.

#### E.4. LEHENENGO ETAPAKO ERAIKINEN KOSTUAK

##### E.4.1. Iparraldeko kaiko eraikinaren eraikuntza. SZNR\_B01 eta SZPS\_B01 azpizonak.

Eraikitako azalera osoa bi azpizonei dagozkien bi frakziotan banatzen da. Lehenengo frakzioa, itsas eta aisialdi erabileren euskarri dena (Kapitaintzaren erabilera administratiboa barne), SZNR\_B01 azpizonan kokatzen da. Bestea, SZPS\_B01 azpizonan, arrantza erabileren euskarri den eraikuntzarena da.

Bi eraikuntzek programaren arabera izango dituzten egikaritze kostu desberdinak kontuan hartuta planteatzen da aurreko paragrafoan azaldutako banaketa, eta, halaber, bi azpizona ezberdinetan kokatzen direlako.

Lehenengo multzoak lur-arrasetik gora 2.411,74 m<sup>2</sup>-ko sabai-azalerako azalera eraikia edukiko lukeela planteatzen da; eta, bigarren multzoak, lur-arrasetik gora 5.388,22 m<sup>2</sup>-ko sabai-azalerako azalera eraikia.

Banaketa horrek ez du arauzko izaerarik, modu adierazlean egiten da, eraikuntza horren kostua aurrekontu kontserbatzaile izaerarekin kalkulatzeko aldera.

##### E.4.1.1. SZNR\_B01 – ITSAS ETA AISIALDI ERABILERARAKO AZPIZONAKO ERAIKINAREN GAUZATZEA, KAPITAINZTA BARNE

- Kontrataren egikaritze-kostua:

Lur-arrasetik gora 2.411,74 m<sup>2</sup> x 1.150 €/m<sup>2</sup> sabai-azalera..... 2.773.501€

- Proiektu + zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinaren liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua:

2.411,74 m<sup>2</sup> x (1.150/1,19) x (8,5/100)..... 198.107,21€

- Udaleko zergen eta eraikinen aseguruen kostua  
 $2.411,74 \text{ m}^2 \times (1.150/1,19) \times (6,5 /100) \dots\dots\dots 262.493,75\text{€}$
- **Itsas eta aisialdirako eraikina + Kapitaintza, guztira ..... 3.123.101,96€**

**E.4.1.2. SZPS\_B01 – ARRANTZA ERABILERARAKO AZPIZONAKO ERAIKINAREN GAUZATZEA**

- Kontrataren egikaritze-kostua:  
 $\text{Lur-arrasetik gora } 5.388,22 \text{ m}^2 \times 815 \text{ €/m}^2\text{-ko sabai-azalera} \dots\dots\dots 4.391.399,3\text{€}$
- Proiektua eta zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinen liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua:  
 $5.388,22 \text{ m}^2 \times (815/1,19) \times (8,5/100) \dots\dots\dots 313.671,38\text{€}$
- Udaleko zergen eta eraikinen aseguruen kostua:  
 $5.388,22 \text{ m}^2 \times (815/1,19) \times (6,5/100) \dots\dots\dots 239.866,35\text{€}$
- **Arrantza-erabilerarako eraikina, guztira..... 4.944.937,03€**

**E.4.2. Iparraldeko kaiko eraikinak, guztira**

**Iparraldeko kaiko eraikinak (SZNR\_B01+SZPS\_B01 azpizonak), guztira ..... 8.068.038,99€**

**E.4.3. Lehenengo etaparen kostua, guztira**

- Iparraldeko kaiaren eraikuntza (SZNR\_B01+SZPS\_B01 azpizonak) ..... 8.068.068,99€
- **Guztira ..... 8.068.038,99€**

**E.5. BIGARREN ETAPAKO LANEN KOSTUAK**

**E.5.1. Matxikortako zerbitzu eraikinen kostua. SZIC\_B02 azpizona**

- Kontrataren egikaritze-kostua:  
 $\text{Lur-arrasetik gora } 9.674,28 \text{ m}^2\text{-ko sabai-azalera} \times 650 \text{ €/ m}^2\text{-ko sabai-azalera} \dots\dots\dots 6.288.282\text{€}$

- Proiektua + zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinaren liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua:

9.674,28 m<sup>2</sup>t x (650/1,19) x (8,5 /100)..... 449.163€

- Udaleko zergen eta eraikinen aseguruen kostua:

9.674,28 m<sup>2</sup>t x (650/1,19) x (6,5/100) =..... 343.477,59€

- **Guztira .....** **7.080.922,59€**

#### E.5.2. Frantxuako kaiko eraikinaren kostua. SZUC\_B01 azpizona

- Kontrataren egikaritze-kostua

12.450,12 m<sup>2</sup>t x 1.000€ m<sup>2</sup>t ..... 12.450.120€

- Proiektua eta zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinaren liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua:

12.450,12 m<sup>2</sup>t x (1.000/1,19) x (8,5/100)..... 889.294,28€

- Udaleko zergen + eraikinen aseguruen kostua

12.450,12 m<sup>2</sup>t x (1.000/1,19) x (6,5/100)..... 685.048,57€

- **Frantxua eraikina, guztira .....** **14.019.462,90€**

#### E.5.3. Lur eremuaren zabaltzeko betetze lanak egikaritze kostua, SZIC\_M02 eta SZIC\_M03 azpizonetan.

- Kontrataren egikaritze-kostua: .....4.760.000€

Kai-muturraren hasierako tarte berria..... 2.975.000€

Dagoen kai-muturraren hasierako tartearen eraispena + esplanaden eraikitzea ..... 1.785.000€

- Proiektua eta zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinaren liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua

(4.760.000 / 1,19) x 0,085 ..... 340.000€

- Udaleko zergen + eraikinen aseguruen kostua  
(4.760.000 / 1,19) x 0,065 ..... 260.000€

- **SZIC\_M02 eta SZIC\_M03 azpizonetako betetze lanen kostua, guztira..... 5.360.000€**

#### E.5.4. Bigarren etaparen kostua, guztira

- Matxikortako zerbitzu eraikinaren kostua, SZIC\_B02 azpizona..... 7.080.922,59€
- Frantxuako kaiko eraikinaren kostua. SZUC\_B01 azpi-zona..... 14.019.462,90€
- SZIC\_M02 y SZIC\_M03 azpizonetako betetze lanen kostua..... 5.360.000,00€
- **Guztira ..... 26.460.385,50€**

### E.6. HIRUGARREN ETAPAKO LANEN KOSTUAK

#### E.6.1. Lonjaren handitzearen bigarren fasea

- Kontrataren egikaritze-kostua: .....3.294.848,88€
- Proiektua + zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinaren liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua  
(3.294.848,88 / 1,19) x 0,085 ..... 235.346,35€

- Udaleko zergen eta eraikinen aseguruen kostua  
(3.294.848,88 / 1,19) x 0,065 ..... 79.970,74€

- **Lonjaren handitzearen bigarengo fasea, guztira..... 3.610.165,97€**

#### E.6.2. SZUC\_B02 azpizonako ekipamendu publiko eraikinaren kostua

- Kontrataren egikaritze-kostua: .....1.576,46 x 1.200€ = 1.891.752,00€
- Proiektua + zuzendaritza + kalitatearen kontrola + segurtasuna eta osasuna + hondakinen kudeaketa + eraikinaren liburua + topografia + azterketa geoteknikoaren zerbitzu-sarien kostua  
(1.891.752 / 1,19) x 0,085 ..... 135.125,14€

- Udaleko zergen eta eraikinen aseguruen kostua

(1.891.752 / 1,19) x 0,065 ..... 103.330,99€

– **SZUC\_B02 azpizonako ekipamendu publiko eraikinaren kostua, guztira ..... 2.130.208,13€**

### E.6.3. Bokaleko zubiaren kostua

2001eko kostuari 1,62 maiorazioko koefizientea aplikatuz:

2.705.000€ x 1,62 = ..... 4.382.100,00€

### E.6.4. Hirugarren etapa, guztira

Lonjaren zabaltzea ..... 3.610.165,97€

SZUC\_B02 azpizonako ekipamendu publiko eraikina ..... 2.130.208,13€

Bokaleko zubia ..... 4.382.100,00€

**Guztira ..... 10.122.474,10€**

## E.6. BERMEOKO PORTUKO AZPIEGITURAREN EGIKARITZEA OSATZEKO INBERTSIO OSOA

Eraikuntzen eta portu lanen inbertsio osoa **44.650.898,60€**koa izango da.

Bilbo, 2020ko Uztaila

ARKITEKTUAK

Izpta.: Anton Agirregoitia Aretxabaleta - Iñaki Peña Gallano - Ibon Pascual Arechavaleta